

3. Diagnostikoa

3.1. AMIA analisia: Ahulguneak, indarguneak, mehatxuak eta aukerak

Barneko eta kanpoko analisiaren eta jardunbide egokien azterketaren ondoren, AMIA azter ditzakegu, jarraian erakusten den bezala:

AHULGUNEAK

Ikerketa gutxi integratuta dago sistema asistentzian.

Institutuen arteko lankidetzak ez da nahikoa eta BIOEFen lidergo estrategikoa eta koordinazioa falta da.

Osasun-ikerketako institutuak lurraldeko erakunde sanitarioekin (ESIekin) integratzeko esparru komuna ez dago behar beste definituta.

Carlos III.a Osasun Institutuaren akreditazioarekiko mendekotasuna, eta EAEko estrategiarekin bateratu beharra.

Bio-institutuen osasun-ikerketako Europako posizionamendu eta lidergo eskasa

Belaunaldien arteko erreleboa eta osasun-profesionalen ikerketa sustatzeko beharra (ikerketa-karrera)

Enpresa-sarearen eta EAEko sistema sanitario publikoaren arteko lankidetzak nabarmen hobetu daitezke.

Ezagutza globala kudeatzeko politika gutxi garatzen dira.

INDARGUNEAK

Ezagutzarako ahalmen handia dago, baita ikerketarako eta berrikuntzarako gaitasuna ere, eta sistema sanitarioak kalitate-estandar handiak eta osasunean emaitza bikainak ditu.

EAEko osasun-ikerketako institutuak (OII) prestigio handia dute Estatuan eta osasun-sistemen arloko ikerketan ondo posizionatuta daude Europan.

Institutuak esperientzia eta posizionamendu ona dute. Bildutako baliabideak pixkanaka ugartuz doaz.

Nazioarteko, estatuko eta, gainera, BIOEF eta Ikerkuntza Sanitarioko Institutuak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko kide aktiboak dira.

Euskal osasun-sistema teknologia berriak hartzeko egokitzeko gaitasuna.

EAEko osasun-ikerketako institutuak malguak dira, eta hazte-fasean daude.

Euskal Autonomia Erkidego osorako Sarean integratutako osasun-sistema publikoa (ESIak).

MEHATXUAK

Sistema sanitarioaren lidergoa eta kalitatea galtzea, ikerketa eta berrikuntza oso gutxi integratu direlako.

Profesional sanitarioak ez daude motibatuta eta haien ezagutza apurka zaharkituz doa.

Ikertzaileen artean ez dago belaunaldi-ordezkapenik, eta posizionamendu nabarmena lortu duten ildoak desagertzen ari dira.

Ikerketa-funtsak gero eta lehiakorragoak dira egiturazko finantzaketa finkorik ez duten EAEko osasun-ikerketako institutuentzat.

Estatuko eta nazioarteko zientzia- eta teknologia-arloan, gero eta lehia handiagoa dago prestigio handiko ikerketa sanitarioko zentroekin.

Aldaketa teknologiko etengabeek zaildu egiten dute sistema sanitariora egokitzeko bidea.

AUKERAK

Pandemiaren ondoren, jendarteak gero eta interes handiagoa du ikerketa sanitarioan.

Eusko Jaurlaritzak osasun-arloko ikerketa eta berrikuntza sustatzeko apustua egin du, EAEko espezializazio adimendunaren lehenetsuneko hiru esparruen artean (ZTBP 2030).

2021-2027 aldiko Estatuko Zientzia eta Berrikuntza Estrategia. 2021-2023 aldiko Osasun Ekintza Estrategikoa, Eraldaketa eta erresilientzia berreskuratzeko planaren esparruan, Carlos III.a Osasun Institutuaren bitartez.

Horizon Europe programaren bitartez apustu handiagoa egin da Europar Batasuneko ikerketa eta berrikuntza sanitarioaren alde.

EAEko enpresa-sarea haziz doa osasun-arloan.

Sisteman eragin handia duten teknologia- eta ikerketa-aldaketak egon dira: eraldaketa digitala eta medikuntza pertsonalizatua.